

MICHELEN MISTERIOA
Evangelina Descalzo Alcuaz
Igantzi

Jones esnatu berria zen. Kafea prestatzen hasi zen eta egutegiari begiratu zion. Nahi gabe gogora etorri zitzaion errealitatea. Lau urte, lau urte luze. Momentu horretan, txikitako oroitzapenak burura etorri zitzaizkion. Michel, bere anaia zaharra, biak futboleant aritzen, etxeko zelai eder horretan, geroago, neskei buruz solasetan, nolakoak ziren, lehen-dabiziko muxuak. Gauza zoragarriak, gauza ederrak. Baina bat-batean, gau hura, dena iluna, zentzugabea. Bere anaiaren dei bat jaso zuen: “Jones, Jones lagundu! Gauza beltzetan sartuta nabil ... baina” eta deia moztu zen. Jonesek ahal zuen bezala mugikorra hartu eta bere anaiaren zenbakia markatu zuen. Deus ere ez, koberturarik gabe. Korrika hasi zen, Richmond Parketik, inora joan gabe, eta edozein lekutara joaten. Isilpean sufritzen. Beldurrez. Ez zekien zer egin. Bere amak Londreseko polizi famatuenei deitu zien, aspaldiko partez, baina Jones bezain galduak zeuden. Dena ilunagoa ikusten zen. Sobera iluna ... eta nola ez buruari birak ematen hasi zen. Galderak

egiten, erantzunik gabe. Eta kezka gorputz guzitik. Une batean amets txar bat iruditu zitzaion. Labirinto baten antzekoa. Baina ernatu zuen bere telefonoak, Europar kanta madarikatu batekin. Bere anaia zen, Michel zen. Segidan hartu zuen, eta presaka galdezka hasi zen “Michel, hor zaude? Zertan zabilta sartuta? Kezkatuta gaude, Michel, Jainko maitea, erantzun mutil! “Deus ere ez berriz ere isiltasun hutsa. “Michel mesedez!, Zer gertatu da? Hemen nago, badakizu, zuri laguntzeko prest!” Deus. Jones indarrrik gabe geratu zen. Non zegoen Michel? Zergatik eskatu zuen laguntza?... Eta une horretatik aitzinera ez zen deus gehiagoz oroitzen.

Jones bere ametsetik jaitsi zen. Bere emaztea sukaldean sartu zen, Harry besoetan zuela:

–Egunon potxolo, ongi zaude?

–Jane, egunetik egunera gero eta ederrago zaude. Baina, ez al da goiz zuek erne egoteko?

–Noski –erantzun zuen Janek. –baina zure seme polit hau, beti ernatzen da bere aitarekin batera, baina bere aitari bost axola.

–Barkatu egiatan. Atzo berandu joan nintzen ohera, eta gaur goizean, erdi lo nabil.

–Berriz poliziekin arazoak?

–Bai. Lau urte, eta oraindik deus ere ez. Arrastorik utzi gabe joan zen. Hau tristura.

–Jones, maitea, ez da agertuko eta badakizu. Tristura handia sortzen duen arren, ez dakigu zer gertatu den, edo zergatik.

–Hori da koska. Pertsona batek ez du eskatzen laguntza eskapo joatekotan baldin badago. Logi-

koa den bezala. Neure ustez, bertze kontu batzuetan zegoen sartua; diru kontuetan.

–Hala izango balitz, zure anaia seguru aski hila egonen da. Jones, mesedez, ez egin hau. Lau urte, eta inork ez du pistarik harrapatu. Ez pentsa datu huts batzuk arazoa konponduko dutenik. Normalean ez dira halakoak izaten. Eta badakizu!, Jones, zure semeak aita bat behar du. Eta urte honetan ez duzu egun bat osoa pasatu etxean. Beti kanpoan. Poliziarekin. Aspertuta nago egoera honetaz.

–Jane maitea– saiatu zen lasaitzen Jones– bada-
kit. Arrazoi guztia daukazu, baina jarri nire lekuan. Ni izan nintzen bere hotsa aditu zuen azken pertsona!, eta nire anaia da, berari esker elkar ezagutu genuen!, ulertu nazazu, faborez, hau niretzat hagitz zaila izaten ari da.

–Ados. Baina opor batzuk behar ditugu... ulertzen didazu... Zu, Harry, ni eta hondartza polit bat. Hiruak, aste batez.

–Ados ni ere. Baina gaur poliziarengana joanen naiz, azkeneko aldiz ... behar dut!

–Nahi duzuna egin, baina kontuan izan agindu didazuna; Aste bat.

–Laztana, maite zaitut. Eta zu ere txikitxo. Banoa, arratsaldean egonen gara. Eskerrik asko, Jane, mila esker.

Kafea bi tragotan hartu, jantzi zen ikusi zuen lehendabizikoarekin eta etxetik joan zen.

Bere burua berriz airetik zebilen. Egundak beldur horiek. Poliziaren joan-etorriak, amaren nega-

rrak... dena batera. Lidia, bere neska, lehertua zegoen. Ez zen agertzen Lourdesen etxera galdezteko bere mutilaren berririk, ez zuen entzun nahi, eskatu zien deitzea Michel agertzerakoan. Lau urte, Lidiari buruz deus jakin gabe.

Dena beltza, iluna... azken finean Michelen bizia bezala. Michel, 30 urte desagertu zenean. Mutil jatorra, familia onekoa, goapoa, 1,90 metro, eta bere aitaren enpresan lan egiten zuen. Lourdesen enpresa, metalen fabrikaziora dedikatzen zen. Familia leku onean zegoen soziedadean, baina beti ardi beltz bat erdian. Michelek gauza on aunitz zituen ... fisikoki soilik. Alfer hutsa zen, bere aitari esker egiten zuen "lan" enpresan. Neska aunitz edukitzekoa zen, baina azkeneko denboraldian Lidiarekin egona zen. Neska goapa bat, Kolonbiakoa. Beti arazotan sartua zegoen. Baina ez zitzaion deus gertatzen, aita baitzegoen bera defendatzeko prest. Arazoa, aita hiltzerakoan sortu zen. Hortik aitzinera, ez zuten Michel normalean etxean ikusten. Noiz behinka, agertzen zen Lidiarekin, baina beti kanpoan, lan egin gabe, alfer hutsa. Bere anaia, Jones, kontrakoa zen. Mutil jatorra, ez hain goapoa, baina bai ikaragarri langilea, osasuntsua eta arduratsua. Bera astronomoa zen. Txikitatik gustatzen zitzaion espazioa, eta Londreseko planetarioan lan egiten zuen. Jane, bere anaiak aurkeztu zuen. Neska hain polita. Ile gorriko neska panpoxa. Begi handiak eta berdeak eta larruazala olio kolorekoa. Zoragarria zen. Gainera, hiztuna, xelebrea, eta argia. Historian lizentziatua. Bikote

zoragarria, perfektua. Halaxe urteak pasatu ziren eta maitemindu ziren. Michel desagertu zenean, Janek beti lagundu zion. Berarekin joaten zen poliziarengana, biek batera ... Baina Michel ez zen agertzen. Michel, Michel ... mutil hain argia bazuetan eta hain zozoa gehienetan. Jones, poliziarengana ailegatu zen, eta Joseph Koronela eta ikertzailea esperoan zeukan:

–Jones. Zer moduz? –erran zuen tonu xeleborean.

–Joseph, nola egonen naiz... berriz eztabaida izan dut Janekin. Kezkatua dabil niregatik, Harry handitzen ari dela eta ni ez nagoela erraten dit... Eta arrazoa dauka ... Buruan korapilo ederra daukat.

–Laguna, nik berri onak ditut zuretzat.

Momentu horretan Jones sentitu zuen bihotza geldirik zeukala.

–Zer berri?

–Dokumentu bat. Drogen inportazioari buruzkoa.

–Droga? Zertan ari zara? Neure anaia droga kontuetan sartuta? –Jonesek, ostikada bat jaso izango balu bezala sentitu zen.

–Bai, eta ez hori bakarrik. Guk, lau urte hauetan, Lidiaren pausoak segitu ditugu hurbiletik, eta duela aste bat “desagertu” zen.

–Zer esan nahi duzu horrekin?

–Hila dagoela.

Hutsune luze bat sortu zen. Jonesek ez zuen zentzua aurkitzen.

–Jones hila zegoen kokaina sobredosis batengatik.

–Egitan? Gaixoa... baina zer ikustekorik du horrek nire anaiarekin?

–Bere etxean hila aurkitu dute. Eta bere ondolan, paper bat. Dokumentu bat, zure anaiaren ize-nean.

–Zein urtetakoa?

–Aurtengoa Jones. Gainera banketxe kontu batekin lotu dugu. Kodigoa diagrama baten moduan jarrita zegoen.

–Eta nola jakin duzue kodigo zuzena? Zentzuren bat dauka?

–Jones, laguna, hori da gehien harritu gaituena.

–Zergatik? –bota zuen Jonesek erdi desesperatua.

–Zerbakiak data bat adierazten dute.

–Zein?

–Zure semea, Harry jaiotako egun berbera atera zaie kriptografoei, eta banketxe kontuan sartzekoan, halaxe zen.

–Egitan? Eta zer esan nahi du honek? Neure anaia bizirik dagoela?

–Ez dakit Jones. Gure ustez suizidio bat izan da.

–Espikatzen ahal didazu?

–Noski –hau erran ondoren, denbora pasatzen utzi zuen, Jones konturatzeko itxaropenarekin.

–Ez dakit, ez dut ulertzen.

–Ados. Begira, orain dela lau urte denak zineten susmagarriak kasu honetan, baina Lidiak paper garrantzitsua jokatzen zuen. Bere neskalaguna zen,

eta aunitzetan joana zena Kolonbiara, bere familia bisitatzeraz. Hori ez zitzaigun susmagarria iruditu, baina bai bere anaia droga trafikatzailerag nagusia izan dela gure zonaldean. Hortik aitzinera, ez dugu atsedunik hartu eta hauxe gertatu da. Aste bat zeraman bere etxetik atera gabe. Leihoak itxiak, soinurik egin gabe. Orduan pentsatu genuen hoherena sartzea izango zela. Eta halaxe egin genuen. Hilda zegoen, guztiz hilda.

–Ongi, horraino ailegatzen naiz. Eta non dago berri ona?

–Lasaitu zaitetz gizona. Kafesnea nahi duzu? Laurenek hagitza onak prestatzen ditu ...

–Joseph! Jainko halakoa! Esanen didazu nahi dutena?

–Ados, ados. Barkatu. Autopsiak erran zigun gaindosia hartu zuela, eta horren ondorioz bihotzekoa eduki zuela. Etxe oso-oso miatu genuen, eta dokumentu batzuen artean, banku batena aurkitu genuen, zure anaiaren izenean.

–Uste duzu nire anaia egina zuela joan baino lehen?

–Bai, halaxe da. Dokumentu horrekin batera paper batzuk aurkitu genituen, horko batean pasahitza zegoen. Kontuan, 600.000\$ zeuden. Eta paper batean mehatxu bat ere. Hartu!

Jonesek, bere eskutan hartu zuen paper hura. Hagitza argi zegoen bere anaia kontu zikinetan zebilela, baina ez zuen izan hain argi bere bizitza osoan. “Kontuz non sartzen zaren Michel, graziazik ez, dena gaizki, zu gurekin gaizki portatu, niri ez

gustatu. 600.000\$ aunitz dira. Bihar, edo erran aio zure bizitzari” irakurri zuen Jonesek ingeles itsusi batean. “Argi dago” errepikatzen zuen, “Michel! Anaia, behar zaitut!”

–Kolonbiara bidali ditut neure bi agente hobe-renak, Jones. Atzo ailegatu ziren, lasai egon.

Lo zeuden Robert eta Jacob. Bidaia luzea, eta kasu beltza. Hotela noski, merkeegia, eta zerbitzua txarra. Bainugelari sartu zen Robert, eta ispilura begira gelditu zen. Berrogeita hamar urte luze zituen eta polizi gisa ia ia hogeita bost. Jakinduriaz betetako pertsona. Zahartua. Dibortziatua eta 3 seme-alabekin. Kasu honetan lau urte zituen. Bere burmuina jartzen, bere esperientziarekin. Jacob berriz, gaztea, eta abenturak izateko gogoz. Arraroak sentitu arren, bazekiten nora joan behar ziren. Lidiaren etxera. Hor gauzak argituko ziren.

Jones korrika zebilen, pozik alde batetik, Michelen pista zuten! Hori poza! Sinesgaitza! Baina egia...

Etxera ailegatu eta Janeri dena kontatu zion, berriz esperantza. Mundu guztiak jakin behar zuen. Ama, gure amatxo maitea. Goxoa eta maitagarria. Beltzaran ederra. Zentzu guztietan. Xelebrea, bizitzeko gogoz nahiz eta seme bat non dagoen ez jakin, Harryngatik hiltzen da.

Segituan denek bazekiten. “Michel, beti gogoan” pentsatu zuen Jonesek. Hila egon arren, ez zen dena misterio madarikatu bat, sinpleagoa baizik.

Kolonbian gauzak ongi zeuden ere. Robert eta Jacob, atera ziren hoteletik hiri barrenera. Etxe

batzuetara joan ziren, arrakasta eduki gabe. Baina Jacob ez zegoen nekatzekotan. Etxe txiki bat aurkitu zuen.

–Ei, Robert! Eta hor?

–Jacob, ados. Baina inork ez du ezagutzen hemen Lidia, zergatik hor bai?

–Robert!

Eta biak abiatu ziren. Bertan amona zahar bat bizi zen. Galderei erantzun zien bakarra, Lidiaren amatxi. Nahiz eta pena handia eduki gauza bat erakutsi behar ziela erran zien. Biek konturatu ziren Michelen kontu bat zela.

Etxe barrenetik pasatu ziren gela estu batzuetatik lorategi batera iritsi arte. Bertan erran zien berrehun metroz segituz, egurrezko etxetxo bat zegoela. Segitu zituzten amonaren instrukzioak. Hor zegoen, oihan tropikal batean, etxetxo txiki bat. Prisarik gabe hurbildu ziren. Eta atea ireki zuten.

–Kaixo? –esan zuen Robertok.

Ez zuen inork erantzuten. Bertan sartu ziren eta sofan etzanda Michel harrapatu zuten ernatu zuten eta Ingalaterrara bueltatu ziren ia hitzik esan gabe.

–Michel! Michel! Anaia maitea!

Familia guztia egon zen denbora bat pasatzen.

Azkenean, Michelek testifikatu zuen:

–Bai, gauzak argi daude. Lidia droga kontuetan sartua zegoen. Eta nire izena erabili zuten diru aunitz izategatik. Beti erraten zidan zeinen zoriontsuak ziren nire familiakoak. Baina orain pozik nago berriz askea, bizitzeko gogoarekin!